LOTAZILLA
5
Eguena
Bilhao, 1935

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 lirko. iru lir.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urte
Atzerijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.159 zenbakija

Euzkotar Umien Aldez

Berdinkeriak

"Berdinkeri guziak gofotogafi".—Cervantes. "El ingenioso hidalgo don Quijote de la Mancha".

Umeai asiera ona emateko lenengo-lenengotik beaf dan gauza, eztabaida gabe aginpedea dala esan nuan aspalditxo batean gai au euzkotaf umetxoen aldez erabili nuanean.

Aginpidearen aurka eta asiera onaren aurka dauden gauza batzuetzaz idaztera noa, berdinkeriatzaz gauf.

Bai dira guraso asko, umeari aufez-aufe, arpegiz-arpegi beaf dan bezela agintzeko ausardirik ez dutenak.

Augaitik, "auxe egin beaf dezu" edo ta "beste au ez degu egin beaf" esan beafean, eta "zegaitik ori, amatxo?" umeak galdetuko ba'leu "Neuk nai detalako" edo "neuk nai ez detalako" edo ta "zeuri kalte auxe edo bestea etofiko zaizulako, legof-legof esan beafean guraso abek bakaf-izketak egiten asi oi dira era onetara:

"Auxe da ume gogaikafi ta aspergafia! Iñoiz-ez-iñoiz amak esandakorik ez du egin nai. Berau dala ta eztala zoratu egin beaf det, Ene! umea izan leikeala ainbesteko alpefa, ta nagia! Gañera amaren esana egin baño urkatu nayago du. Egundo onelako umerik!"

Era onetara jardun oi du ama gaxoak bere burua nekatzen, gaxotzen eta ernegatzen. Eta au guzti au beaf dan bezela, gogofkeri gabe, baña osotasunez agintzen ez dakialako.

Beste batzuetan, bakaf-izketatik berdinkerietara jo oi du amak umeari esana eragiteko. Eta ara nolako alkaf izketetan eman oi duten ama umeak euren denbora.

—Ez aldizut esan iluntze-iluntzean etxera etortzeko? Beti gauza bat esaten ari naiz, ume, eta gauf ere ilundu duanean zure astarnarik ere ez eta neskameak erten beaf izan du, eta efi guztiari bira eman zeu bilatzeko. Ez dezu zuk Andanitqo'ren antzik, ark bai esana egin amari. Ura bai mutil txintxua, Ura bai ilundu baño len etxera beti zure ordez.

—Ene, ama, Andonitxo neurekin ibiltzen da bata. Gauf ere neskamea nere bila etofi danean biok pelota-lekuan geunden.

Eta amak beriakin erteteagaitik esango dio: Gezufa ori, Andonitxo ez da zu bezelakoa ta. Andonitxo esangiña da.

Umeak befiz: —Galdetu eyozu ba neskameari ia egia ez dan nik diotana.

Beste egun batean. Amak: —Ara orain ere oñetako danak busti-busti egin da. Itxas ertzean ibili zera zu betiko moduan. Egunen batean olatuak afapatu eta an eramango zaitu beretzat. Esaten dizut ba nik makiñatxo bat bider Efamuntxo bezelakoa izateko. Ark ez dio beñepein bere amari zuk neri ainbeste itz erasaten. Uraxe da umia sekula oñetako buztiakaz ikusi ez detana.

Umeak: —Ez ba, igande goizean meza nagusian bakafik ikusten dezu ta. Ni baño ondotxo safiago ibiltzen da ura oñak bustita, eta prakak gefiraño ere bai amaika bidez. Juan dan ostegunean ere Portu-Txiki'ko aitzetan lapetan zebilen bitaftean, itxasoak abarketak eramanda oñutzik etofi zan ura etxeraño. Galdetu eyozu ia bere amari, ia egia ez aldan.

Amak, nolabait bukatzeagaitik: —Nik ez daukat aren amari ezer galdetu beafik; bai dakit nik Efamuntxo nolako ume ona ta esangiña dan da.

Umeari berdinkeri edo konparazio abek egitea, bere aziera onaren kaltean dala ufengo lanean azalduko det.

ARITOKIETA.

Naimena

Ez det uste bein euzkera arazoetan eldu geran malara eldu ezkeroz, geure ele maitiagaitik apur bat zayatzen diranetatik asko egongo diranik, naimena itzak zer esan gura daben jakingo eztabenik. Baña nola nire gaurko idazlan onetako oñafitza dan, lenengotik bere esanguria azaltzia deritxat bidezkoena bada-ezpada be, naiz ta euzkaltzalion aurpegiak gofituta utzi. Naimena erderazko "voluntad" degu irakufle.

Mintz polita, goxoa entzuteko, efaza esateko, liraña ta indartsua batera.

Urtzi Deuna'k euzkotafei neufi-gabe, oparo, eman digun mena. Ala adierazten digute gure nekazari zinduak, geure lur sail, elkofetik egunero landuaz bizibidea ateratzean. Pilotariak nekege indartsu ordu bat, bi, ta iruan bizi ro jazanik jokaldiaren gertakizunak, gure mendigoizale leialak españetan ifipaferik xamufena daramafela mendi-galur zofotzetan gora igoaz. Efiak bere euzkera zaar maitia mintzatzean, ainbeste arerion erpoietatik gordetzean...

Gertakizunik naigabetsuenetan bere, irakaskixun egokiak idoro geinkez safitan, geure samiña alde batera usten ba'degu.

Oraintsu or Napafoa-aldian aizkolari ospetsu bik gudu izugafi bat izan eben. Efi guztia enparantzaratu zan indar-neurketa ura ikusteko asmoz, eta gudu ori ikustera alaikiro ta atsegintsu juan ziranak, itun da negarti biurtu ziran bakoitza bere etxietara; aizkolari bietako batek jokaldia galtzia baño bere zofia eriotzari ematia naiago izan eban da.

¡Neufi gabea ziñez, aizkolari bulartsuaren naimenaren indafa! ¡Euzkotara izaki noski!

Noizpeinka olako eredu edefak ematen diran afen, ixaten ditugu tamalez ordez besterakoak ere. Une itunetan latafen gogoak apurka-apurka zufuztatzen gaituala iruditzen zaizkit.

Geuro urkoen artian ere, apurbat eurok arakatzen ba'ditugu, onetaiko asko arkitzeko zoria izango degu noski.

Naimenaren apufik ere ez duten notiñak. Euren zoin da irudimen guzia argaitzen diozkaten griñak aldentzeko indafik ez duten izaki efukafiak. Lauremin edo bastzangak jotzen duana legez onek ere gaxoak ditugu, sendatzeko alegiñik egite ezpadabe, bizi guztirako ondatuta geldituko diran gaxoak. Itxuraz indartsu, osasuntsu diran mutil-gaste asko ta asko arkituko ditugu gaitz izugafi onen aspian jausi diranak, bizitzakin aufez-aufe jafi baño len autsita, ondatuta, dauden gizon eta emakumesko ugariak.

Bear-beafekoa da men gafantzitsuau sakon azterkatzia—asko dira ezagutu be egite estabenak—bera beardan bezela erautzeko, bada beragandik emaitz onurakofak artu geinkez.

Gauza efaza dala deritxat bakoitxa bere naimenaren osagiie edo zaindari izatea. Bere indafa zenbaterafio eltzen dan esagutu. Gexoa dan. Ze motatakua dan gaxo ori... t. a. Bein azterketa ori egin ondoren, bakoitzak berari dagokiozan neufiak artu bitez, gero ak sendatzeko, aulak indartzeko, da okeferantz daramatenak zuzentzeko.

Onetarako Aita P. E. Boyd Barrett'an "La fuerza de la voluntad" izenpurutzat daraman idaztia dala deritxot egokiena, gai oni buruz orain arte argitaldu diran idastietatik. Bertan idoroko dituzu irakurle, ikaskizun befi bereziak.

Naimena, mintz polita, goxoa entzuteko, efaza esateko, liraña indartsua bear-beafeko mena euzkotafontzat eta batez ere abertzaliontzat.

Gure euzkera maitagafia jasotzeko naimen gabe ba'gaude, abefiaren gogoa sendatzeko adorerik gabe ba'gera, Euzkadi azkatzeko indafik gabe habaitzen ba'gera; eman dagioguzan gure zoñak lenengotik eriotzari, napartaf aizkolariaren lez, Sabin aundiagaz batian esanaz abertzaletasunera biurtu ninduan bere erabaki biozkor ura:

Il nayago det
ikusi baño
abefiaren amaya.

Bortane.

Begi - urdin

Ba-dot aurtxo eder bat
ezti utsa dana,
lo dagoanean, ixil,
dagiot laztana

Begi bi dauz urdiñak,
liluragafiak,
ainbat argi eztauka
goiko eguzkiak.

Afaskofi sorgiña
dauko bekokian,
mao bi ezpanetan
ufea uledian.

Garitzan pospoliñak
eder dau abesa:
nik aren begietan
dot ene amesa.

Euzkirik euzkien yat
aur begi-oztin au,
artzipean beñik-bein
antzekorik eztau

Zeru dakust beragan,
zorunez betia,
begiratuz ase daust
edermin bizia.

Bizitz-bidean aurki
ba-dot kulumio,
lagun esku berari
laster noakio.

Oñaze-geriza gain
dabilkidanean,
argi-ontzi oberik
eztazeut lufean

Zerdakardan aspaldi
baruan eztakit,
baña biotz gose au
agana doakit.

Zer dot...? Au oldakuntza!
Zerbait dakit peitu.
Oi Josu, begi-urdin,
zer daustazu ostu?

Biztari trebe, azkona
daust artez egotzi,
ta biotz-mamiñean
zofozkiro yosi.

Nere biotzan yaube
bera dot geroztik:
Bizi nadin efoak
maitean egiñik.

JAGOBA.
Karmeldafa.

Jentillen bola-lekuba

Lengo egun baten, "Diabru-labafa"-tzaz emen edestuten diran ipuintxu batzuk edestu neutsuzan, irakufle. Gauf ostera, "Jentillen bola-lekue,,'tzaz zer edo zer baño geyago esan biaf daufzut. Orainguan be baña, bazaia edo etzala... esan biaf dodana, aritik-marira ipuñetan esango dautzut.

Lenengo baña, ezetan asi baño len, "Jentillen bola-leku" miragafi ori, non dagoan ikusi biaf dozu; ezjakiñian, edo obeto esateko, itsu-mustuan ora ta ona oinkada zororik egin eztagixun be. Ganera bafiz, gauzea, ikusirikuan askozaz lenago ulertzen da.

Gura ba-dozu, ontxe bertantxe, astiro naiz arinka, zeuk al-dozun lez, Untzillaitz erpiñera zuaz.

"Kapana-buru,,'tik bazuaz oba. Odeyeta'ko landara bein igo ezkero, andik osterik-oste triski ta trauski juanaz, bape bizkofa bazara beintzat, beingo baten erpiñeratuko zara ta. An goyan, txuntxuf txuntxufian, egonaldi-txu bat be edefto egin zeinke; ta, neke-osteko atsedena, zeru-ertzian gozoro aftuta gero, Mañari'ko atxaftian softua bazara, Urkiola alderantza eun bat oinkada ardura barik emon zeinkez; ta bestela, or beko urijetan jayorikua bazara, labaf andi ofetan kontuz ibili biafa ixango dozu... Ta, bafiro beste ofenbeste oinkada alborantza emon orduko "zuti ta muti" Jentillen bola-lekuen "plantauko" zara.

Eta orduban...

—¡Ene; au dok "jentillen bola-lekue..."?—Iri destañez esango dozu—. Bedaf-guriz orniduriko landa txiki-txiki bat baño eztok ba ta... Landa-au, bere ixenaren jabe, ezetara be ezin letekek ixan. Lekutxu ontan bola-jokuan, nok iñafdu leikek gero... Ez len, ez oin, ez gero... etxagok olakorik...

Olantxe da ixan be, "Jentillen bola-lekue" deritxon lekua, bedaf - guriz apaindariko landa txiki-txiki bat baño ez-ta. Baña, emeko baseriiafak esaten dabe, jentillak, lamiñak eta zorgiñak, gauza bakanak egiten ebezala; ta, ataturiko landatxu ofetan be, antxiña, jentillak, bola-jokuan ekiten ebela; ta, ori zala ta, gerora, efiko jentiak leku ori, "Jentillen bola-lekue" ixentzat ezafi eutsoela.

Jentillak, beso ta anka luze-luziakaz, areiz-tantayak lakoxe gixon andi-andijak ei-ziran. Indartsuak bafiz, eurak lakuak... Euren beso luziak ikututen euzan zugatzak, sendoenak ixan da-be, txirikilan jausten ei ziran; eta euren ankazafak zapaltzen ebezan afijak, safi-askotan austuta gelditzen ei-ziran. Gixon bakan bakanak ei-ziran.

Efi-ontako jentillak, gauf San Martin basotxonua dagon inguruan bixi ei ziran. Eta euren jolas bakanetan ekiteko, gabero-gabero Untzillatz-erpiñera juaten ei-ziran beti. Ona emen jolas ofetzazko ipuintxuak...

Ilargi edef-edefak gau ilun-ituna argi bereziz argiztuten eban gau miragafi baten, Otzortia'ko gure jentillok Untzillaitz-txuntxufera jolasari ekiten juan ziran.

¡Gauf zetan jolastuko yuagu...?—Jentil nagosijak ofuaka esan eban.

—¡Gauf bolan!— enparau jentillak erantzun eutsoen.

—Tira ba, bolan... Bolan ekingo yuagu ba...—Jentil-buruak esan eban—. Armokiia ekafi ba aguro...

Orduan, euretariko batek, Markaida 'ko labafari afi-mokil andi bat kendu eutson. Miia afobako afi-biribiia zan. Eta armokiia besapian ebala jentil-buruagana aurkeztu zan; eta ben - ben esan eutson.

Or dok ba bolie
miia afobako afije
azkaz gora jaurtiteko
euk gura dokan gustije...

Eta, beriala bola-jokuan asi ziran. Afi-mokiiak keya ataraten eban; batera ta bestera indaf-andiz jaurtiten eban. Alako baten, armokiiak, bere lekutik at juan zan, eta bere zartada efimiak etxeko zugatz gustijak efoz -gora txirikiian jaurtin zituan. Alako triskantzarik!

Eta, atxa-bera bilin-bolaka etofi zan afte zugatz batek, "Kukin" aftzain -mutil efimia, buru-erdijan jota, zeraldo luferatu eban. Jentillak "Kukin" mutiia, mafe eben; egunoro ardi-esne gozoz alikatzen ebazalako, kutun-kutun eben. Ori zala-ta, ezbiaf itun ofek, efime tamaldu ebazan. Eta gustijak batera atxa-bera afapaladan jatsita, mutiia seneratuten ari ziran. Ofetarako efemedijo batzuk egiñaz.

Jentil batek, asunekaz arpegijan joten eban; beste batek ostera, bulafa akef-koipiaz igortzi, ta ufenguak, bere bafuko arnasia mutiiaren abora sartzen ekin... Ofek gustijok olan zirala be, bana, mutiiak zirkiñik bez.

Onetan, euretariko bateri, txistua jota dantzan, dantzan egitia otu yakon; mutiia gaste-alaya zala-ta, biaf ba, alafasunak seneratuko ebala, usterik.

Gerotxuago, zugatz-ganian gau-txori batek, moxolo batek abestu eban.

¡Ujuju!
Ze jentil da ze jentil oste
ze soñu ta ze txistu
bein mutiia il ezkero
ezin leike biztu.

Ori entzunik, jentillak ikeratu ziran; eta, txori-moxoluari ixil-mixilka esan eutsoen. "Gixon santzolari, nundik oranbeste jakituri...?"

Moxoluak bafia, jaramonik bez; bere egoakaz "pla-pla" otsa egiñaz iges egin eban.

Jentillak, moxoluaren esanari jaramonda, Kukin ilda eguala tamalez uartu eben. Eta, gau atan bertan, beste aftzain-mutil baten bila asi ziran; eta ofik-emetik ibilijak ibili eginda be ezin ixan eben mutiiik aurkitu. Orduan, besterik ezian, mutil bafija euren eskuz egifia erabagi eben.

Ona, zelako soin-atalakaz mutil bafija egin eben.

Lenengo, zotzezko oin-bietzak ezafi eutsoezan; gero bafiz, sagaf-ustelezko orpuak, kafiaberazko txankak, kipulazko belaunak, bildots-nafuzko sabela, ayenezko estiak, afto-lastozko besuak, egufezko eskuak, kafazpuztazko bulara, aratxafosko bizkafa, igeltsuzko afpegija, tomatezko matraiak, afautza lokazko begijak eta kalabazazko burua.

Eta, jentillak, eurek egiñiko mutiia, lufezko pipia mustufian ebala, mendija gora bialdu eben Txori-moxoluak baña, itxura atako mutila mendira igoten ikusi ebanian, bafe-santzoka asi zan; eta "Sasi-berezi" izentzat ezafi eutson.

(Jafaitzeko.)

Mañariko.

Galdakano

Euzkadi geure Abefijak baditu, tamalez, berau ezautu ez edo ezaututa aldeztu gura eztaben semiak. Baña bai, ostera, Abefitik at egon-afen, bere aldez lan zintzuak egiten dabezanak, be. Onetariko euzkotaf zintzua, Euzkadi 'ren seme kementsuba olefkari on-ona dogu geure auzokide, Goiri'taf Joseba Andoni, Teresetxu Deuna'ren Karmel Abea.

Ara emen geure eskubetara diran olefki edefak, EUZKADI'n argitaldubak ixan dadixan. Ezta lenengo, orain afte be irakufi doguz, ba, bere olefki edefak. Jafatu begijo Goiria'k lan on ofi. Ementxe jaften doguz efitaf adizkide ofen olefkijak, galdakanotafak irakufi dagijezan.

Basakiña.

"GALDAKANO NEURE JAYOTERIARI"
(EUZKADI'rako.)

(Gumuzlo'ko batzokiko abertzale zintzo jayo ta auzokide - adizkideai bijotzez.)

Galdakano'ko mafe neure sortzeko
seaska kutun
ezti-gozoa;
nire bijotza gaur igeska lez
pozez eztitan
zugana doa.

Zugana doa bertsoz jantzita
pozez urturik
agur-eitera;
bafengo ezpa zofotz-bizia
mafe-tamalez
agertutzera.

Izpaf baltza gauf dauste iragafi:
Jainko - bidian
zarala txaftu
t'erijotzara daroan bide
nasai-iratsua
dozula aftu.

Bere kabitik ufuti dagon
semiarentzat
¡izpaf mingotsa!
orijotz-zauriz... ia il zorijan...
itxi dau miñez
nire bijotza.

Jainko-bidetik bein aldenduta
ixan dateke
zorun-gentzarik?
Lizunkerizko bide-ilunetan
bai ete-dago
argi-pozarik?

Biurtu befiz malkoz daskatzut,
Jainko-bidera
efi-matija;
ortxe baiago egizko poza
zorun osoa...
gentza, eztija.

Ekin lanian, efi matia,
zuf oldozpena
zeruan dala,
izan betiro Eleiz Ama'reu
aldezle zintzo
eta leyala.

Zaindu arduraz, afen, Euzkera,
izkuntza ori
zeuria bai-ta;
ilten ba'dozu zure izen ona
betiko laidoz
lotua da-ta.

Aufera beti ainbeste seme
andi-garbalen
ama lordena,
ta izan lenbailen gure Euzkadi'ren
burestuneko
pitxi onena.

Piztu ba piztu, efi matia,
zure efayetan
ziñesmen-sua;
irafi zure bijotz-bafnian
burni gorijaz
JEL goiburua.

GOIRIA.
karmeldafak.

Gayak

JON DEUNEN TXADONAN

Bilbao'ko eftxadon onetan Sofkunde Orbanbakua dan Ama Neskutza'ri bederatziufena egiten diñardube.

Igazi dan aziia'n 30'gafenian asi zan, iia onen 8'gafenian, Sofkunde Orbanbakua'ren jayan amafuteko.

Goxeko seiretan eta zortzi ta erdijetan, euzkeraz egiten dabe bederatziuren au. Zortzi ta erdijetakuan txonitza be euzkeraz oguzten dabe.

Txonizlarija, gastia dogu, Andoni Deuna'ren Kuiril nekalditaf lekaide agufgafija.

Txonizlari gaste euzkeldun oni, itzak samuf urtetan dautsoe. Aldi laburian itz asko oguzten dauz, baña bai argi be. Abotsa be alakoxe garbi-garbija dau. Eta abots garbijak, itzak be garbi ta argi oguzi biaf.

Edonoz be bai, baña neguban, txadona, otza be otza ixaten da. Erdi-utsik daguanian, bafiz, iñoz baño otzagua.

Otz eta gusti be, baña, zortzi ta erdijetan ixaten diran euzkerazko bederatziufena ta txonitza entzuten, txadona gonburuz iminteko beste ezafen, batzun-batzuk egunoro elduten dira.

Sofkunde Orbanbakua dan Ama Neskutza, Euzko-Gastedijen Zaindarija da, ixan be. Eta ezegaz orbandu bakua dan Ama ta Neskutza bijak batera dan Zaindarija aintzalduten txadonaratutia, beti be atsegafija ixaten da. Atsegafijen, baña, bere aintzazko bederatziufena ta txonitzak oguzten dijan.

Eta bederatziufen eta txonitzak ure ele kutsugian oguzijak bafiz, berez atsegafijak dira kixunoik, ezti gozo biuftutek.

Ezti ofein biia duaz egun Jonen eftxadonaratuten diran dun-taldetxuba be.

Andoni Deuna'ren Kuiril Sofkunde Orbanbakua dan Ama tza, goi-goira jasota iminia gozuak zuzenduten dautsaz Neskutsa detu, ta biafteko tzat aftu ta aguftu.

Egun baten, gixonaren zo eban gaiztokiko sugetzafan oñaspijan jafi eban, eta bu duta imiñi.

Miren Sofkunde Orbanbakua gustijen Ama dalako, biafko efukija da; seme-alaba gu mafalia... Miren Ama Neskutza-alaba gustijak mate dauz, jen zorijona gura dau.

Ludi labanian oben-bidera gabiltzan obendi efukafijoin fi oi-da, Miren, gu galbidetik bide zuzenera eruateko ed tuten.

Oben-oxin zikin eta atsi tuta gabiltzan obendi efukun bako itxaso usteldufi lioferatuteko daukan ixon ñena, seguruena, aguftza d

Ama Neskutza'ren agufi elduten dautsan obendirik b galduko txonizlarijak esan Ama Neskutsa'ri agufiza dagitsan obendarijak, Goiragaz ixango dau—lekaidausku—. Donokira duazu iztokirako diranak be, e agututen dira—epafu dausku

Miren Ama Neskutza'ri dautsoenak—getu dausku ro be, donokirako ixango Ama Neskutza'ri onerapotsoenak, ostera, donokirik leikie, ama-altzuan atseden un umetxubari ama-mafakua yakalako.

Sofkunde Orbanbakua'ren ufeneko txonizak euzkeldauzan nekalditaf garbi esaten dauz. Donokira erakusten dau. Oben-bidek giratuten dauz, eta eurek eta labanak agirijan imiñi.

Eurija jausten dala nai egunoro txadonaratuten dira apufixubak. Sofkunde Orbanmafaliatzazko itzaldi edefiak sendotuta poz-pozik eurietara ta bakotxaren zereten dira. "Agufi Miren efi Donetsija Zeu, emakumien Donetsija Zeure Sabaiak sofi

Uribilafteko.

Deunen bixitzea

Gorutze Deuna'ren Gorakundia

Irala-14'gn.

Goiko Jaunak zigoftau nai-ixan eban Poka bakalduna, txara bai-zan. Otura dongiak eukozan eta kistafai ezeutseon baketan isten. Berak bixitzea kendu eutsan Maurikiri be. Oretarako Persi'ko bakalduna zan Koska'ri gurarija sortu-eragin eutson guda-egiteko Persi'taren gudarostiak etofi ziran Poka'ran luraldietara eta ambat erki eurekanatu ebezan. Poka'ren egunak berialako batean amafu ziran, bere antzeko gaizkiñak ziran batzuk, ba, bixitzea kendu eutsen. Ordez Erakil jezafi zan bakaulkijan.

Persi'ko bakaldu gaiztuak, abagunaretan, azpiratu ebazan amaikatxu uri eta Jerosolima uri deunerafio, be, eldu zan. Al ebana ostu, aguriai-eta bixitzea kendu eta uriko Gotzain zan Zakari berakin eruan eban.

Baña etzan gauza areikaz asetu. Jerosolima'n eguan Kisto geure Gaizkalia'ren Gurutz deuna eta axe be eruan eban. Persi'ko uri nausijan eukan bakaulkijan ipiñi eban, ufezko koroi baten ganian. Erakil'ak ikusten ebazan aren afokerijak eta gastedi piiua berakin afturik uften yakon efege ari. Ikeragafizko gudaldijak ixan ziran, baña gurendarik ezeban iñok loftuten. Azkenez Erakil'ak Miren Neskutza'ri otoi-egin eutsan, gurendea eskatuz.

Une arexetan ikeragafizko ekatxa jaso zan. Txingofa ta abazuzija baño etziran eta persifafai begijetaratzen yaken; kistafai, ostera, ezer ezeutsen egiten. Berialako batean Erakil eta garafikuak garale urten ziran.

Kosra azpiratuta geratu zan eta kistafai emon eutsezan Gurutza eta enparau gauzak. Gurenda a loftu ebalako, Erakil bakaldunak bere lepo-ganian artu eban Gurutza, amalau urtetan Kosra'ren menpian egon zan Gurutz deuna. Uriz uri ibildeun itxelak egin ebezan.

Baña Jerosolima urira eldu ziranian, ate-aufian bertan tinki geratu zan eta oinkada bat be ezegikian egin, Ikeratu zan efegia eta Zakari Gotzain deunak esan eutsan: Ara bakaldu on ori: Kisto'k eruan ebanaz eztaruazu Gurutza, bestera baño. Ofexegafik urijan etzaitekez safitu". Orduban kendu ebazan bere soñanzki dotoriak eta buruko koroya eta oñutsik safitu zan uri nausi aretan.

Gurenda axe ospatzeko alatz aundijak egin ebazan Goiko Jaunak eta ilta eguan bat befpiztu zan. Gexorik egozanak osatu ziran, itsubak, be, ikusmena jaritsi eben. Orduz gero Gurutza deunaren bitafiez alatzik aundijenak jazo-ixan dira ludijan. Ixan, be, Kisto'ren Soin deuna bere ganian jasan eban Gurutza edo Abe areri zor yako itxal gustija.

Orain ezkondu zera

Orain ezkondu zera
Ta betirako aldendu gera.
Zeure gorputzaren edefa
Beste batentzat da
Zeure espainaren mosua
Beste espainaren mosua
Beste batentzat da,
Zeran eta ziñana
Eta izango zerana
Den dena
Guzti guztia
¡Beste batentzat!
¿Ta neuretzat?
Neuretzat begiaren negafa
Ta biotzaren tristura legofa!

LOTSATI.

ERRIJETA

FORUA

ONDO-ETOFIJA.—Aste bastenan etofi yaku ixentauta euki daben txakuba betetan geure efikidia dan Odoyaga'taf Bonigastia. Txaunburutza ugarijak eukitia dopaltsot.

PELOTARIJAK.—Aurten Batzokijen pelota-txapelketafitafak be itxaftu egin bertan alde-aftun be. ¡Eta be gero! Lenengoko jokaltzat keya atara dabe Zabima-basterefetan, euren aregaminiztafak 12'jan lagiaz.

Jokaldi onetan alde artzabaden Idoyaga'taf Peli, Julen eta ordaingo Morgataf Faben diraz.

AGURTU.—Egun batzuk naga'taf Bitoren, abefkide bat adizkidia gure aftian ixabatsuk igaroten sendi-ondo

ETXE-UTZITUTIA.—Abenak doguzan Amunategi'ta Bariazafa'taf Bingen'en sazaba daben Idoyaga'taf A bixi diran basetxiak utzifiduba artun dabe.

¿Bai ala ez ete-urtengo d ta utzitutea onen zegaiti ba'da ala ez egun batsuk duko doguz asti geyagogaz

ETXE-ALKAFTIA.— Zeeta bere auzokide Mikel basetxeko efentadoriak, Mi Gerbasi ugazabaren agin -alkafte edo kontratuba Kontratu au lagijak agindtik labufena, lau-urtera gnera ugazabaren aldetik egon ete danekua dogu: tin zafapada-aldi aunditz ta bere agirirk afuten dkusteko emon gura ixan Ixenpetuten onen gerostik darik ixan dabe beste ingi ptubaz afateran aftapaixan dabezalako. Baña entzubek eta bestek be ezer pel ori ondo aifuten daben kutzi ta berak ontzat dautzube. Bitaftian gelixena idaztiaz.

GEXORIK.—Aspalditxu aurkitzen da adizkide Amunategi'taf Eulali, Pa ospetsuba. Obeto aurkitzfiak poztasun aundija dabait-len guztiro osatu geure gunamenik aundije

IB